

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak trenbide-korridorearen inguruan Estatuarekin egindako hitzarmenaren koordinazio eta jarraipen batzorderako deia egin du

Ayerdi lehendakariordeak uste du Sustapen Ministerioak obrak bere gain hartzeko hartu duen erabakia ez dagoela justifikatuta

Osteguna, 2017.eko irailak 14

Nafarroako Gobernuak Foru Komunitatean trenbide-korridorea garatzeko Estatuarekin sinatuta duen (2010) indarreko hitzarmenaren koordinazio eta jarraipen batzordearen bilerarako deia egingo du gaur bertan, bi administrazioen artean dauden desberdintasunak aztertzeko eta "Nafarroako interes orokorra" asetzen duen akordio bat lortzeko.



Nafarroako Gobernuaren egoitza.

Horrela adierazi du Garapen Ekonomikorako lehendakariorde Manu Ayerdik, Sustapen Ministerioak korridorearen obrak bere gain hartzea erabaki duela adierazi ondoren. Lehendakariordeak erabaki horri buruzko iritzia eman du prentsaurrekoan Maria Solana Gobernuako eledunarekin, eta haxe adierazi du: "Espainiako Gobernuak lehentasuna eman die UPNrekin indarreko hitzarmenaren eta nafarren interes orokorraren inguruan egindako akordioari".

Manu Ayerdik esan du Ministerioak jarrera hori hartu duela UPNk PPren gainean egindako presioengatik, biek Estatuko aurrekontuen inguruan sinatu zuten ituna betetzeko. Horren arabera, Sustapen Ministerioak Castejón-Campanas trenbidearen hurrengo tarte 2017an lizitzatzeko konpromisoa hartu zuen. Adierazi duen moduan, biek bazekiten hori betetzea oso zaila zela, arrazoi teknikoengatik eta izapideengatik, eraikuntza-proiektuen egoera kontuan hartuz.

Hiru hilabeteko lana eta lankidetzak

Horrez gain, bere ustez "ez dago justifikaziorik" Ministerioak erabakia hartu duen unea, "azken hiru hilabete eta erdi hauetan bi administrazioen teknikariek elkarrekin eta lankidetzan lan egin dutelako akordio bat lortuko zutela ziur zeudelako". Horren frogak gisa besteak beste esan du dagokion eskaeraren ondoren, Foru Administrazioak zazpi egunetan dokumentazioa bidali ziola Ministerioari, eta horri esker, ADIFek

Alesbes-Erriberri tartearen oinarritzko proiektua onartu zuen joan ekainean, "zenbait urte etenda egon bazen ere".

Lehendakariordeak azken egunetan Iñigo De la Serna ministroarekin izandako elkarrizketak aipatu ditu, eta zentzu horretan, joan den asteartean, irailak 12, Nafarroak Ministerioaren proposamenari erantzuna bidaltzeko "prest" zuela esan ziola, eta horrez gain, hau esan ziola: "etxea ordenatu behar dugu hitzarmen ekonomikoari dagokionez, funtsezko elementua baita Nafarroarako, eta dagoeneko amaitzeaz gaude, bosturtekoa eguneratzeko".

Sortutako egoeraren aurrean Ayerdik defendatu du Nafarroak eta Estatuak 2010ean gai horren inguruan sinatutako egungo hitzarmenaren indarraldia, eta azpimarratu du ez dela ez-betetzerik gertatu Nafarroaren aldetik hartutako erabakia justifikatzeko. Zentzu horretan, gaur bertan, hitzarmenean ezarritako koordinazio eta jarraipen batzorderako deia egingo duela esan du, "hitz egiteko, eztabaidatzeko, eta itxuraldatzen ari diren beste elementu batzuk alde batera uzteko gai bagara, akordio batera heltzeko". Adierazi duenez, Nafarroak batzorde horretan defendatuko duen proposamena, hainbat alditan errepikatu duen moduan, Sustapen Ministerioaren konpromisoa erakustea izango da, Zaragoza-Iruña-Euskal Y-a korridorearen tarte guztiak, Iruña-Euskal Y-a, Iruñeko begizta (epeaz gain, batzuen eta besteen konpromisoak ere argitu behar dira), Castejon-Iruñerria eta Zaragoza-Castejón tarteari aldi berean amaitzeko.

Ekainean hartutako erabakia

Bestalde, Maria Solana eledunak, Nafarroako Gobernuaren izenean emandako balorazio batean haxe esan du: "zinez sentitzen dut Espainiako Gobernuak UPNrekin egindako akordioei lehentasuna ematea, indarreko hitzarmenaren eta Nafarroako interes orokorraren gainean". Eledunak haxe adierazi du: "PPren gobernuaren jarrera zentralistaren aurrean Nafarroako Gobernuak hitzarmen bermedun bat izatearen alde egiten du, eta UPNk egin duena horri uko egitea da".

Nafarroako Gobernuaren iritziz, Ministerioaren erabakia, atzo jakinarazi bazuten ere, duela hilabete batzuk hartu zuten. Ekainean PPK eta UPNk Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartu zituzten. "Erabaki horrek argi erakusten du zein den PPK Nafarroarekin duen konpromisoa", esan du, eta bi alderdiak kritikatu ditu, "alde batera utzi behar den eta inondik inora ez doan tren" bat egiten saiatzeagatik.